

KANALAK

Bezeroengana iristeko kanal propioak erabiliko ditugu, batez ere, denda on lineak.

Erabaki dugu, bezeroekin harremanetan jartzeko Internet erabiliko dugula (webgune baten bitartez) komunikazio-kanala bezala, WebPen-ak saltzeko modurik errazena eta egokiena delako gure ustez.

Banaketa-kanal bezala, garraio-enpresak erabiltzea iruditzen zaigu egokiena eta haien bidez bidaliko ditugu WebPen-ak.

WebPen-en prezioa ez da igoko, baizik eta, hauen salmentetatik %3-a garraio enpresei joango zaie, lanaren zati bat beraiek egingo dutelako, beraz, bezeroek, ez dute gehiago ordaindu beharko garraioarengatik.

MRW edo NACEX enpresen bidez produktua bezeroengana lehenbailehen iristea lortuko dugu, 24ordu eta 48 ordu bitartean.

Online dendetan (Amazon, Aliexpress...) salmenta asko izan ezkerro, informatika dendatan edota supermerkatuetan (Carrefour, Media Markt...) jarriko genituzke, salmenta ahalik eta handienak lortzeko.